

**EUSKARAREN ERABILERA  
NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA**

**BARAKALDOKO UDALA**

**V. plangintzaldia (2013 – 2017)**

---

**PLAN ESTRATÉGICO DE NORMALIZACIÓN  
DEL USO DEL EUSKERA**

**AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO**

**V periodo de planificación (2013 – 2017)**

# AURKIBIDEA / ÍNDICE

<b>0. Sarrera</b>	
Índice .....	4
<b>I.- Ingurune juridikoa</b>	
Contexto Jurídico .....	6
<b>1. Arautegi orokorra</b>	
Normativa general .....	7
<b>2. Barakaldoko Udalak hartutako erabaki eta neurriak</b>	
Acuerdos y medidas adoptadas por el Ayto. de Barakaldo .....	9
<b>II.- V. plangintzaldiaren ardatzak</b>	
Ejes del V. período de planificación .....	12
<b>1. Eragin eremua</b>	
Ámbito de aplicación .....	13
<b>2. Eragin epea</b>	
Período de vigencia.....	13
<b>3. Xede Nagusia</b>	
Objetivo principal .....	13
<b>4. Helburu orokorrak</b>	
Objetivos generales .....	14
<b>5. Oinarriak</b>	
Principios fundamentales .....	15
<b>6. Metodologia</b>	
Metodología .....	16
<b>7. Parte hartzaileak</b>	
Participantes .....	16
<b>8. Lehentasun komunikatiboak</b>	
Prioridades comunicativas .....	19
<b>9. Berariazko hizkuntza-prestakuntza</b>	
Capacitación y formación específica .....	20
<b>10. Antolakuntza egitura</b>	
Estructura organizativa .....	21
<b>11. Baliabideak</b>	
Recursos .....	22
<b>III.- V. plangintzaldiaren irizpideak</b>	
Criterios del V período de planificación .....	24
<b>1. Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak</b>	
Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales .....	25
<b>2. HE-ak eta DD-ak ezartzeko irizpideak</b>	
Criterios para la asignación de PLs y FP's .....	44
<b>IV.- Eragin esparruak, adierazleak eta normalizazio ekintzak</b>	
Ámbitos de aplicación, indicadores y actuaciones de normalización .....	48
<b>1. Eragin esparruak</b>	
Ámbitos de aplicación .....	49

<b>2. Helburuak, adierazleak eta normalizazio ekintzak</b>	
Objetivos, indicadores y actuaciones de normalización .....	50
<b>V.- Eranskinak</b>	
Anexos .....	59
<b>A.- Kudeaketa plana 2013</b>	
Plan de Gestión 2013 .....	60
<b>B.- 2013ko kronograma</b>	
Cronograma 2013 .....	71
<b>C.- Udal arloen sailkapena</b>	
Clasificación de las áreas municipales .....	74
<b>D.- Administrazio-kontratueta hizkuntza irizpideak sartzeko proposamena</b>	
Propuesta de inclusión de criterios lingüísticos en las contrataciones administrativas.....	81

## SARRERA

EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan oinarrituta, Euskara Zerbitzuak “*Barakaldoko Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa – V. plangintzaldia 2013-2017*” dokumentua prestatu du bere onespenerako.

Barakaldoko Udal Batzari dagokio plan estrategiko hau onartzea. Ondoren, udal erakunde autonomoetara bidaliko da, erakunde bakoitzeko gobernu organoak plan honekin bat egiten duen ala ez erabaki dezan. Edozein modutan, erakunde autonomo hauek, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan xedatutakoa kontuan hartuta, euskara, gaztelania bezala, zerbitzu hizkuntza izango dela bermatu beharko dute erakunde osoan; hainbat ekintza-eremutan hizkuntza irizpideak aplikatu beharko dituzte eta euskara lan eta erakunde arteko harreman-hizkuntza izan dadin behar beste baliabidez hornitu beharko dira.

Bestalde, zuzenbide pribatuko erakunde publikoei dagokienez, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak hizkuntza normalkuntzarako neurriak hartzeko beharra aurreikusten du. Honela, aipatu Dekretuaren laugarren xedapen gehigarrian jasotzen denaren arabera, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak bi hizkuntza ofizialak zerbitzu hizkuntza modura bermatzera behartuta daude eta, ondorioz, helburu hori lortzeko dokumentu honetan jasotzen diren jarraibideak betetzera.

## INTRODUCCIÓN

En base al Decreto 86/1997 de 15 de abril que rige el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones locales de la CAV, el Servicio de Euskera ha elaborado, para su aprobación, el documento “*Plan Estratégico del Ayuntamiento de Barakaldo para la Normalización del Uso del Euskera - V periodo de planificación 2013-2017*”.

La aprobación de este plan estratégico corresponde al Pleno Municipal. Posteriormente, se enviará a los organismos autónomos municipales para que los correspondientes órganos de gobierno decidan si subscriben o no el plan presentado. En cualquier caso, estos organismos autónomos, de acuerdo con lo establecido en el Decreto 86/1997, de 15 de abril, deberán garantizar que el euskera, al igual que el castellano, sea lengua de servicio en todo su organismo, y, así mismo, deberán aplicar los criterios lingüísticos en los diversos ámbitos de actuación y les corresponderá dotarse de los medios pertinentes a fin de que el euskera pueda ser utilizado como lengua de trabajo y de relación entre diversas instituciones.

Por otra parte, en lo concerniente a los organismos públicos regidos por el derecho privado, el Decreto 86/1997, de 15 de abril, prevé la obligación de que los mismos adopten medidas tendentes a la normalización lingüística. Así, según lo establecido en la disposición adicional cuarta del citado Decreto, los organismos públicos de Derecho privado están obligados a garantizar la utilización de ambas lenguas oficiales como lengua de servicio, y, consecuentemente, a cumplir las directrices recogidas en este documento para la consecución de dicho objetivo.

Horrez gain, 123/2008 Dekretuak, uztailaren 1ekoak, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzkoak, eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua (2003-12-23) garatzen duenak, bere 38. artikuluan, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dutela xedatu eta nola egingo den zehazten du.

Asimismo, el Decreto 123/2008, de 1 de julio, de derechos lingüísticos de las personas consumidoras y usuarias, que desarrolla el Estatuto sobre las personas consumidoras y usuarias (23-11-2003), establece en su artículo 38 que las entidades públicas de derecho privado garantizarán la presencia de las dos lenguas oficiales en las relaciones con las personas consumidoras y usuarias, concretando como ha de producirse dicha presencia.

# **I.- INGURUNE JURIDIKOA**

## **I.- CONTEXTO JURÍDICO**

## 1.- Arautegi orokorra

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera sustatzeko politikak **Euskararen Erabilera arautzen duen 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean** dauka bere hastapeneko erreferentzia.

Herri-aginteei gagozkielarik, lege horretan xedatzen da herritar guztiak dutela herri-administrazioarekin nahi duten hizkuntza ofizialean harremanak izateko eskubidea. Ondorioz, herri-aginteen betebeharra xedatzen du, eskubide hori muga edo trabarik gabe betetzen dela ziurtatua izan dadin.

Era berean, **1989ko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak**, euskal herri-administrazioetako lanpostu zerrendetan jaso behar diren baldintzak eta betebeharrak xedatzen ditu, euskaraz derrigorrean jakin beharreko lanpostuei dagokienez.

Aipatu ditugun lege horietan xedatutakoaren arabera, **1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak**, araubidezko marko orokorra ezartzen du, euskal herri-administrazioek euskararen erabilerean normalkuntzaren eremuan egin beharreko lanari buruz. Lan horretan bete behar diren gutxieneko baldintzak, plangintzaaldiak eta epeak arautzeaz gain, dekretuak bost urtealdirako planak egitea aurreikusten du, plan horietan jaso behar baitira, aldi bakoitzerako, dekretuak xedatzen dituen esparru guztietan aurreikusitako neurriak.

Aurreikuspen horien artean, hizkuntza normalkuntza prozesua abiarazteko

## 1.- Normativa general

La política de promoción del uso del euskera de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma Vasca se enmarca dentro de lo establecido por la **Ley 10/1982 Básica de Normalización del Uso del Euskera, de 24 de noviembre de 1982**.

En lo que a los poderes públicos se refiere, dicha ley establece el derecho de los ciudadanos y ciudadanas a relacionarse con la administración pública en la lengua oficial de su elección. Consiguientemente, establece también las obligaciones que atañen a los poderes públicos para garantizar el ejercicio de tal derecho.

Asimismo, la **Ley 6/1989 de la Función Pública Vasca, de 6 de julio de 1989** establece los requisitos que las relaciones de puestos de trabajo de las administraciones públicas vascas deben recoger, con respecto a la preceptividad del conocimiento de la lengua vasca.

En desarrollo de lo dispuesto en las citadas leyes, el **Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma Vasca**, establece el marco reglamentario general en el que debe desarrollarse la actividad de las administraciones públicas en materia de ordenación de la normalización del uso del euskera. Además de los requisitos mínimos, períodos, ritmos y plazos, el decreto prevé elaborar planes quinquenales en los que deben recogerse el conjunto de medidas previstas para la aplicación de lo establecido en el decreto.

Dentro del marco de las medidas previstas, el artículo 4 del citado decreto

oinarrizko tresnatzat jotzen ditu aipatutako dekretuaren 4. artikulua euskararen erabilera normalizatzeko planak. Hain zuzen ere, 18. artikulua dio entitate bakoitzak 17. artikuluan ezarritako normalizazio helburuak betetzeko erabiliko duen hizkuntza politika, bere nondik norakoak eta jarraibide nagusiak agertuko direla euskararen erabilera planetan.

**2003ko abenduaren 23an onetsitako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuak eta 2008ko uztailaren 1eko Dekretuak, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzkoak,** kontsumitzaile eta erabiltzaileei ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko eskubidea aitortzen die. Ondorioz, erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dute.

considera instrumentos esenciales para el desarrollo del proceso de normalización lingüística los planes de normalización del uso del euskera. Concretamente, el artículo 18 dice que los planes de Normalización del Uso del Euskera constituyen la formulación de la política lingüística de la entidad en orden al cumplimiento de los objetivos de normalización que se recogen en el artículo 17.

**El Estatuto de las personas consumidoras y usuarias, de 23 de diciembre de 2003, así como el Decreto sobre derechos lingüísticos de las personas consumidoras y usuarias, de 1 de julio de 2008,** reconocen a dichas personas el derecho a recibir la información relativa a bienes y servicios indistintamente en euskera o en castellano. En consecuencia, los organismos públicos garantizarán la presencia de las dos lenguas oficiales en sus relaciones con las personas consumidoras y usuarias.



## 2.- Barakaldoko udalak euskararen normalizazioa sustatzeko hartutako erabaki eta neurriak.

Barakaldoko Udalak euskararen normalizazioa sustatzeko hainbat erabaki eta neurri hartu ditu:

2.1. Udalaren Osoko Bilkurak 1986ko ekainaren 13an **Barakaldoko Udalaren Araudia, Organoei eta Herritarren Partaidetzari buruzkoa** onetsi zuen. Araudi honen 4. artikularen arabera, *Udalak euskararen erabilera eta normalizazioa ezarriko ditu, euskara Euskal Herriaren kultur-ondarea delako eta, gaztelaniarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoaren hizkuntza ofiziala delako. Udalak, gai horretan, bat egiten du euskarari buruzko legeria bereziarekin.*

*Esangura horretan, jendearekin zuzeneko harremanak dituzten bulego guztietan, funtzionario elebidunak izango dira, harreman horietan, ahoz zein idatziz, euskararen erabilera bermatzeko.*

2.2. Udalaren Osoko Bilkurak 1988ko otsailaren 25ean, **Euskararen Presentzia Erregulatzeko Arauak** onetsi zituen. Araudi honen bidez, hainbat neurri hartu ziren Udalari lotutako esparru guztietan euskararen presentzia sustatzeko, hala nola, inprimaki mota guztietan euskararen presentzia derrigorrezkoa izatea, euskarari lehentasuna ematea edo argitalpenetan euskarak, gutxienez, %30eko tarte hartzea.

## 2.- Acuerdos y medidas adoptadas por el Ayuntamiento de Barakaldo en materia de normalización del euskera.

El Ayuntamiento de Barakaldo, en materia de normalización del euskera, ha adoptado una serie de acuerdos y medidas:

2.1. El Ayuntamiento en Pleno, reunido el 13 de junio de 1.986 aprobó el **Reglamento Orgánico y de Participación Ciudadana del Ayuntamiento de Barakaldo**. En base al artículo 4 del precitado Reglamento, *El Ayuntamiento implantará el uso y normalización del euskera, patrimonio cultural del Pueblo Vasco y como idioma de utilización oficial junto con el castellano en el Territorio de la Comunidad Autónoma Vasca, de conformidad con lo dispuesto en la legislación específica sobre la materia.*

*En este sentido, en todas aquellas dependencias que tengan una relación directa con el público existirá un número de funcionarios bilingües suficiente para garantizar el uso del euskera oral o escrito en dichas relaciones.*

2.2. El Ayuntamiento en Pleno, reunido el 25 de febrero de 1.988 aprobó las **Normas Regulatoras de la Presencia del Euskera**. Por medio de esta normativa se adoptan una serie de medidas encaminadas a reforzar la presencia del euskera en la vía municipal y en los distintos ámbitos relacionados con ella, tales como, que en todo tipo de impresión será obligatoria la presencia del euskera, que el texto en euskera ocupe un lugar preferente o que en todas las publicaciones el euskera figure, como mínimo, en una proporción del 30%.

2.3. Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak xedatzen duenari jarraiki, eta Euskararen Normalizaziorako Batzorde Aholkulariak (ENBA) egindako proposamena aintzat hartuta, Barakaldoko Udalak 1989ko abenduaren 28an egindako bilkura arruntean **Barakaldoko Udaleko Langileak Euskalduntzeko Behin Behineko Plana** onetsi zuen, oraingo egoeraren oinarriak jarrita.

2.4. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuari jarraiki, Barakaldoko Udalak 2009ko abenduaren 30ean egindako 30/2009 zenbakiko bilkura arruntean IV. Plangintzaldiari zegokion **Barakaldoko Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2008-2012)** onartu zuen.

2.4. 2012ko urriaren 23an Barakaldoko Udalaren Euskara Zerbitzuak **IV. Plangintzaldiaren azken balorazioa eta egoeraren diagnostia** aurkeztu zion ENBA informazio batzordeari.

Diagnostikoa egiteko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak prestatutako galdetegi egituratuan oinarrituta, azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egin da.

Datu kuantitatiboei begiratuta, euskararen ezagutza maila egokia da Barakaldoko Udalean; izan ere, derrigortasun data duten lanpostuetan aritzen diren langileen %77k egiaztatuta dute dagokien hizkuntza-eskakizuna eta are gehiago, langile guztiak kontuan hartuta, derrigortasun data izan zein ez izan, langileen %25ek egiaztatu dute dagokien hizkuntza-eskakizuna. Edozein modutan,

2.3. En base a la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, el Ayuntamiento de Barakaldo, a instancias de la propuesta hecha por la Comisión Informativa de Normalización Lingüística ENBA, aprobó en la sesión plenaria celebrada el 28 de diciembre de 1989 el **Plan Provisional de Euskaldunización del Personal del Ayuntamiento de Barakaldo**, sentando las bases de la situación actual.

2.4. En base al Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma Vasca, el Ayuntamiento de Barakaldo en la sesión plenaria 30/2009, celebrada el 30 de diciembre de 2009, aprobó el **Plan de Normalización del Uso del euskera del Ayuntamiento de Barakaldo** correspondiente al IV período de planificación (2008-2012).

2.4. El 23 de octubre de 2012 el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Barakaldo presentó ante la comisión informativa ENBA la **Valoración final del IV periodo de planificación y Diagnóstico de la situación actual**.

Para realizar el diagnóstico de la situación actual, aprovechando el cuestionario estructurado elaborado por la Viceconsejería de Política Lingüística, se procedió a realizar un estudio cuantitativo y cualitativo.

Basándonos en los datos cuantitativos, el nivel de conocimiento de euskera en el Ayuntamiento de Barakaldo es adecuado; de hecho, el 77% de los trabajadores adscritos a un puesto con perfil lingüístico preceptivo han acreditado el perfil correspondiente e incluso, teniendo en cuenta la totalidad de la plantilla municipal, independientemente de que tengan o no fecha de preceptividad, han acreditado

lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeak ez du bermatzen, kasu askotan behintzat, euskaraz lan egiteko gaitasuna eta euskaraz aritzeko gaitasuna duten langileek ere, inertziaz edo, gaztelaniaz jarduten dute gehien-gehienetan, hau da, gaztelania da oraindik Barakaldoko sortze-hizkuntza nagusia.

Bestalde, Barakaldoko Udalak ez ditu oraindik finkatu Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak eta honek ere eragin zuzena izan dezake langileen erabilera planarekiko inplikazio ezan.

Ezagutza alde batera utzita, Udalaren kanpo-irudiari lotutako esparru guztietan (errotulazioa, papeleria, argitalpenak, web orria, iragarkiak...), orokorrean, bermatuta dago euskararen presentzia, batez ere idatzizkoan, baina oraingoz, itzulpen zerbitzuek bermatzen dute, nagusiki, elebitasun hori.

2.5. Oraingo honetan ere, 86/1997 Dekretua oinarri hartuta eta aurreko planari jarraipena emanaz, 2013. urtean Euskara Zerbitzuak **Barakaldoko Udalaren V. Plangintzaldirako (2013-2017) Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa** prestatu du.

el perfil lingüístico correspondiente a su puesto de trabajo un 25% de los/as trabajadores/as. No obstante, la acreditación del perfil lingüístico no siempre garantiza la capacitación necesaria para poder trabajar en euskera, y aun teniendo esa capacitación, por mera inercia, los propios trabajadores que pudieran trabajar en euskera lo hacen mayoritariamente en castellano, es decir, a día de hoy el castellano es la lengua de trabajo por excelencia en Barakaldo.

Por otra parte, el Ayuntamiento de Barakaldo no tiene todavía establecidos los Criterios Lingüísticos de Uso de las Lenguas Oficiales y esto puede influir directamente en la falta de implicación o desconocimiento de los trabajadores municipales hacia el plan de uso.

Con independencia del nivel de conocimiento, la presencia del euskera está, en general, garantizada en todos los ámbitos relacionados con la proyección exterior del Ayuntamiento (rotulación, papelería, publicaciones, página web, anuncios...), sobre todo a nivel escrito. No obstante, a día de hoy los servicios de traducción son los principales garantes de esa proyección bilingüe.

2.5. En estos momentos, en base al Decreto 86/1997 y como continuación del plan anterior, el Servicio de Euskera ha elaborado el presente **Plan Estratégico de Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de Barakaldo para el V periodo de planificación (2013-2017)**.

## **II.- V. PLANGINTZALDIAREN ARDATZAK (2013 – 2017)**

### **II.- EJES DEL V PERÍODO DE PLANIFICACIÓN (2013 – 2017)**

## 1. Eragin eremua

Plan honen eragin eremukoak dira Barakaldoko Udala eta bere erakunde autonomoak, honela banatuta:

- Hirigintza eta Udal Zerbitzuak Arloa
- Udal Azpiegiturak Arloa
- Hirigintza Diziplina, Ingurumena, Osasuna eta Kontsumoa Arloa
- Giza Baliabideak eta Herritarren Segurtasuna; Ekonomia, Ogasuna, Ondarea eta Berrikuntza Teknologikoa Arloa
- Alkatetza, Herritarrekiko Harremanak eta Komunikazioa Arloa
- Kultura, Hezkuntza, Euskara, Kirolak eta Gazteria Arloa
- Gizarte Ekintza eta Berdintasuna, Lankidetzeta eta Droga-mendekotasuna Arloa
  
- Inguralde
- Udal Kirol Erakundea
- Barakaldoko Euskara Udal Erakundea
- Barakaldoko Haur Eskolak

## 2. Eragin epea

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoaren eragin-aldia 2013ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2017ko abenduaren 31n bukatuko da, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako hizkuntza normalkuntzarako prozesuaren V. plangintzaldia amaitzen den egunean bertan.

## 3. Xede nagusia

Plan Estrategiko honen xede nagusia Barakaldoko Udalean hizkuntza ofizialen berdintasunera jotzea da, hau

## 1. Ámbito de aplicación

El ámbito de aplicación del presente plan lo constituyen el Ayuntamiento de Barakaldo y sus organismos autónomos, distribuido de la siguiente manera:

- Área de Urbanismo y Servicios Municipales
- Área de Infraestructuras Municipales
- Área de Disciplina Urbanística, Medio Ambiente, Sanidad y Consumo
- Área de Recursos Humanos y Seguridad Ciudadana; Economía, Hacienda, Patrimonio e Innovación Tecnológica
- Área de Alcaldía, Relaciones Ciudadanas y Comunicación
- Área de Cultura, Educación, Euskara, Deportes y Juventud
- Área de Acción Social, Igualdad, Cooperación y Prevención de Drogodependencias.
  
- Inguralde
- Instituto Municipal de Deportes
- Barakaldoko Euskara Udal Erakundea
- Escuelas Infantiles de Barakaldo

## 2. Período de vigencia

El período de vigencia del Plan Estratégico de Normalización del Uso del Euskera comienza el 1 de enero de 2013 y finalizará el 31 de diciembre de 2017, es decir, el mismo día en que terminará el V Período de planificación del proceso de normalización lingüística de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

## 3. Objetivo Principal

El objetivo principal de este Plan estratégico es tender a la igualdad de las lenguas oficiales en el Ayuntamiento

da, euskararen presentzia hutsa bermatzetik haratago joanda, euskara izan dadila zerbitzu-hizkuntza herritarrekin, harreman hizkuntza beste administrazioekin eta hala hautatzen dutenen kasuan Barakaldoko Udalaren barruko lan-hizkuntza.

Hiru harreman-eremuak euskararentzat ezinbestekoak izanik ere, herritarrekiko da Barakaldoko Udalarentzat erronkarik garrantzitsuena; izan ere, kalitatezkoa izan nahi duen administrazio batek ehuneko ehunean bermatu beharko luke zerbitzua bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan eskaintzeko moduan dagoela.

Helburua, beraz, bi hizkuntza ofizialen berdintasun formaletik berdintasun egiazkorantz joatea da, pausoz pauso, herritarren hizkuntza-aukera errespetatuz beti, eta hain zuzen ere, horretarako hizkuntza erabiltzeko aukera-berdintasuna bermatuz.

#### **4. Helburu orokorrak**

Erabilera plan honek honako helburu orokor hauek ditu:

- Barakaldoko Udalak herritarrekin dituen harremanetan, ahoz zein idatziz, bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera-berdintasuna bermatzea.
- Langileen hizkuntza-gaitasuna handitzea:
  - Euskararen ahozko erabilera areagotzea.
  - Euskararen idatziko erabilera areagotzea, sorkuntzari lehentasuna emanez.

de Barakaldo, es decir, que más allá de la mera garantía de su presencia, el euskera se convierta en lengua de servicio hacia la ciudadanía, lengua relacional con otras administraciones y lengua de trabajo dentro del propio Ayuntamiento de Barakaldo, para todos aquellos que así lo decidan.

Se trata, sin duda, de tres ámbitos de relación imprescindibles para el euskera; no obstante, el reto fundamental para el Ayuntamiento de Barakaldo no es otro que el de la atención a la ciudadanía; de hecho una administración que ofrece un servicio de calidad debería garantizar íntegramente este servicio en cualquiera de las dos lenguas oficiales.

El objetivo es, por tanto, pasar de una equiparación formal entre las dos lenguas oficiales a una igualdad real, paso a paso, respetando siempre la elección lingüística de la ciudadanía; lo cual requiere garantizar una igualdad de oportunidades a la hora de utilizar las lenguas oficiales en la Administración.

#### **4. Objetivos generales**

El presente plan de uso cuenta con los siguientes objetivos:

- Garantizar la igualdad de oportunidades en el uso de las dos lenguas oficiales, tanto de modo oral como escrito, en las relaciones del Ayuntamiento de Barakaldo con la ciudadanía.
- Aumentar la capacitación lingüística del personal:
  - Incrementar el uso hablado del euskera.
  - Incrementar el uso escrito del euskera, priorizando la creación de textos en dicha lengua.

- Udalaren irudi korporatiboan eta hizkuntza paisaian bi hizkuntza ofizialen erabilera bere osotasunean bermatzea.

## 5. Oinarriak

Hiru izango dira erabilera planaren oinarri nagusiak:

- Herritarren hizkuntza- eskubideak bermatu behar ditu Administrazioak eta bideak jarri behar ditu hizkuntzen berdintasunera jotzeko. Hori lortze aldera, bereziki zainduko du herritarrari lehen atentzioa euskaraz ematea, hari inolako deserosotasunik eragin gabe.
- Halaber, erabilera-plan honen zutabe nagusia Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak izango dira, 86/1997 Dekretuaren 18. artikulua c) eta d) puntuek xedatzen dutenaren arabera:

*c) ondo zehaztuko da zein neurri hartuko den administrazio-atal elebidunek eta, batez ere, euskarazko administrazio-atalek aurrera egin dezaten. Era berean, zehatz-mehatz azalduko da euskara nola erabili eta tratatuko den ondorengo esparruetan: administratuekin eta gainerako erakundeekin izaten diren ahozko zein idatzizko harremanetan, jendaurreko ekitaldietan, argitalpen-arloetan, hizkuntza paisaian eta, oro har, aipatutako hizkuntz helburuak betetzeko erakunde bakoitzak ezartzen dituen gainerako jarduera-esparruetan.*

*d) kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak bermatzea.*

- Garantizar en su totalidad la utilización de las dos lenguas oficiales en la imagen corporativa y en el paisaje lingüístico del Ayuntamiento.

## 5. Principios fundamentales

Tres serán los principios fundamentales de este plan de uso:

- La Administración debe garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía y establecer cauces para tender hacia la igualdad entre las lenguas. Para lograr este objetivo, debe cuidar, especialmente, que la primera atención a los ciudadanos se realice en euskera, sin crearles ningún tipo de incomodidad.
- Igualmente, los Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales habrán de ser el soporte fundamental del presente plan de uso, tal y como se establece en los apartados c) y d) del art. 18 del Decreto 86/1997:

*c) medidas contempladas para el funcionamiento de las unidades administrativas bilingües y las unidades administrativas en euskera, en particular, tratamiento del euskera en las relaciones orales y escritas con los administrados y con otras instituciones, en los actos públicos, en materia de publicaciones, en materia de paisaje lingüístico y en aquellos campos de actuación que cada entidad determine para el cumplimiento de los objetivos establecidos.*

*d) medidas contempladas en materia de contratación, en particular, las tendentes a garantizar que aquellos servicios públicos que conlleven una relación directa con el usuario y se ejecuten por terceros sean prestados a los ciudadanos en condiciones lingüísticas similares a las que sean exigibles para la administración correspondiente.*

- Langileen trebakuntza lehenetsiko da erabilera plan honetan, horixe izango baita benetako tresna edo bitartekoa euskararen ezagutza erabilerarekin lotzeko. Hala, herritarrekin harreman zuzena duten langileei berriazko trebakuntza eskainiko zaie euren lan-jardueretatik baten bat behintzat euskaraz egin ahal izan dezaten.

- En este plan de uso se priorizará la capacitación del personal municipal, ya que ésta se conformará como el verdadero instrumento o medio que relacionará el conocimiento del euskera con su uso real. Para ello se ofrecerá a los/as trabajadores/as que tienen un contacto directo con la ciudadanía cursos de capacitación específicos.

## 6. Metodologia

V. plangintzaldi honen metodologia honakoa izango da:

- Diagnosi kuantitatibo eta kualitatibo batetik abiatuko da, hain zuzen, IV. plangintzaldian izandako emaitzetatik eta eskarmentutik.
- Oinarritzat eta gidaritzat hartuko ditu Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak.
- Ezagutzatik erabilerarako bidea egiten laguntzeko, euskaraz “zer” eta “nola” egiten hasi behar duten esango zaie langileei.
- Zehaztu beharko da nola lortuko diren helburuak, alegia, zein estrategia eta baliabide erabiliko diren eta zein ekintza-plan jarriko den martxan helburuak lortzeko.

## 7. Parte-hartzaileak

86/1997ko Dekretuaren 17. artikulua herri administrazioek gutxienez bete beharreko helburuak ezartzen ditu, erakundeak nahitaez bete beharreko indizearen bitartez. Indize hori

## 6. Metodología

La metodología para el presente período de planificación será la siguiente:

- Partirá de un diagnóstico cuantitativo y cualitativo, concretamente de los resultados y la experiencia del IV período de planificación.
- Se basará y guiará por los Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales.
- Con el fin de ayudar a los/as trabajadores/as a dar el paso del conocimiento al uso, se les indicará “qué” labores y “cómo” deben comenzar a realizar en euskera.
- Deberá definirse cómo se cumplirán los objetivos establecidos; es decir, qué estrategias y recursos y qué plan de acción se acometerá para la consecución de éstos.

## 7. Participantes

El Decreto 86/1997, en su artículo 17, establece los objetivos mínimos que las entidades deberán alcanzar, por medio de un índice de obligado cumplimiento. Este índice viene determinado por los



Erroldako eta Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistikoen arabera zehazten da honako formula honen bidez:

#### **Euskaldunak + (1a Euskaldunak/2)**

V. plangintzaldi honetan, Barakaldoko Udalak bete beharreko indizea %29,23koa da, 2006. urtean Eustatek argitaratutako errolda edo biztanleria eta etxebizitza datuen arabera.

Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea [%25 - %45] tartekoa denean, Barakaldoko Udalaren kasua, honako helburuak izango ditu derrigorrez, bete beharreko indizeak ahalbidetzen dion heinean:

- Administratuari zerbitzua euskaraz eskaintzea bai ahoz, bai idatziz eta, horretarako, jendaurreko administrazio atal elebidunak ezartzea.
- Gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa duten ataletan administrazio atal elebidunak ezartzea.
- Gizarte izaerako ataletan administrazio atal elebidunak ezartzea.

Plan honen ondorioetarako, administrazio-atal elebidunak, 86/1997 Dekretuak ematen duen definizioari jarraituz, euren zereginak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan, batean zein bestean, betetzen dituzten administrazio atalak dira.

V. plangintza aldi honetan atal elebidunak izendatzeko, ondoko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

datos sociolingüísticos de población recogidos en el Censo o Estadística de Población y Vivienda y se establece de la siguiente manera:

#### **Euskaldunes + (Cuasi Euskaldunes/2)**

El índice de obligado cumplimiento del Ayuntamiento de Barakaldo en este V período de planificación es del 29,23 % , en base a los datos de censo o estadística de población publicados por el Eustat en el año 2006.

Cuando el índice de obligado cumplimiento de la entidad sea de entre un [25% - 45%], caso del Ayuntamiento de Barakaldo, deberán establecerse, necesariamente, los siguientes objetivos, en la medida en que se lo permita dicho índice:

- Garantizar la atención en euskera al administrado, tanto oralmente como por escrito, y para ello se establecerán unidades bilingües en las unidades administrativas de atención al público.
- Establecer unidades administrativas bilingües en todas aquellas unidades que tengan contacto directo y habitual con la juventud.
- Designar unidades administrativas bilingües en las unidades de carácter social.

A efectos de este Plan, son unidades bilingües, a tenor de la definición dada en el Decreto 86/1997, aquellas unidades administrativas que desempeñan las funciones propias de las mismas indistintamente en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca.

En este V período de planificación para la designación de unidades bilingües se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

a) Atalburuak eta atala osatzen duten lanpostu guztiek edo ia guztiek euren lanpostuetan derrigortasun data izatea.

b) Langile guztiek edo ia guztiek dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea. 4. HE duten lanpostuetan, kontuan izango da 3. HE egiaztatua izatea.

c) Atalak duen zereginaren izaera eta hizkuntza erabilera aldetik izan dezakeen eragina.

Aurreko guztia kontuan harturik Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean ondoko langile hauek hartuko dute parte:

- Derrigortasun-data ezarria izanik, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu duten atal elebidunetako langileek.
- Zenbait lanposturen lan-jardunak estrategikotzat jotzen badira, gonbita egingo zaie derrigortasun data izan edo ez, dagokien hizkuntza eskakizuna edo baxuago bat egiaztatu duten langileei.

*(Ikusi C eranskina)*

Erabilera planean parte hartuko duten langileak hautatuta, hauen lan-jardunen azterketa komunikatiboa egingo da lehentasunak markatzeko, hizkuntza helburuak lortu ahal izateko, hau da, euskaraz zer egin ahal izango duten erabakitzeko.

Abian jarritako ekintzei esker langileak helburua lortuko balu, alegia, frogatuko balitz langileak ezarri zaizkion komunikazioak euskaraz ere gauzatu ahal dituela, ekintza-planetik kanpo geldituko da, harik eta beste urrats bat eman eta beste helbururen bat ezartzen zaion arte. Hala ere, bere lanaren jarraipena egiten segituko da.

a) Tener fecha de preceptividad el puesto de responsable y todos o casi todos los puestos de la unidad.

b) Tener acreditado el perfil lingüístico correspondiente todo o casi todo el personal. En los puestos que tienen el PL4, se tendrá en cuenta la acreditación del PL3.

c) El carácter de las funciones de la unidad y la incidencia que puede tener respecto al uso de la lengua.

En base a todo lo anteriormente mencionado, participarán en el Plan de Normalización del Uso del Euskera los/as siguientes trabajadores/as:

- Trabajadores/as de unidades administrativas bilingües que, teniendo establecida una fecha de preceptividad, hayan acreditado el perfil lingüístico correspondiente.
- Trabajadores/as de algún puesto considerado estratégico que, teniendo o no fecha de preceptividad, hayan acreditado el perfil lingüístico correspondiente o uno inferior.

*(Ver anexo C)*

Una vez seleccionados los/as trabajadores/as que formarán parte del plan, se procederá a realizar un análisis comunicativo de sus funciones con el fin de establecer prioridades en los objetivos lingüísticos, es decir, para decidir en qué ámbito podrán utilizar el euskera.

Si gracias a las acciones formativas emprendidas el/la trabajador/a hubiese cumplido el objetivo asignado, es decir, cuando quede probado que puede realizar las comunicaciones correspondientes también en euskera, quedará fuera del plan de actuación, hasta que, en su caso, se le establezcan nuevos objetivos. No obstante, se

## 8. Lehentasun komunikatiboak

Azterketa komunikatiboa egiteko honako irizpide hauek hartuko dira aintzat:

- Lanpostuko eginkizunak betetzean herritarrekin izaten den harremana: ahoz zein idatziz.
- Lanpostuko eginkizunak betetzean, zein harreman-sare duten.
- Komunikazioen eragina:
  - Maiztasun handikoak (behin eta berriro errepikatzen direnak)
  - Zabalkunde handikoak (leku eta lagun askorengana heltzen direnak)
  - Idazki askotarako oinarri direnak (ordenantzak, dekretuak ...)
  - Udalaren irudi korporatiboan eragina dutenak (web orria, iragarkiak, argitalpenak...)

Beste era batera esanda: euskararen erabilera normalizatzeari begira, komunikazio bat (ahozkoa zein idatzizkoa) lehentasunezkoztat joko da baldin eta herritarrei edo EAEko administrazioei zuzentzen bazaie eta, maiztasuna edo garrantzia kontuan izanda, eragin handia badu.

Era berean, azterketa komunikatiboak bide emango du, derrigortasun-datak jartzeari buruzko proposamena egiteko.

Edozein kasutan ere, azterketa komunikatibo hori modu errealistan egingo da, ezinezkorik ezarri gabe, jardunbideen norabidea, harreman-sarea eta transbertsalitatea bere osoan ondo begiratuta, euskararen katea eten ez dadin.

seguirá realizando el seguimiento correspondiente.

## 8. Prioridades comunicativas

A continuación se detallan los criterios a tener en cuenta para realizar el análisis comunicativo:

- La lengua de relación con la ciudadanía en el desarrollo de las funciones del puesto: tanto oralmente como por escrito.
- La red relacional que requieran las funciones del puesto.
- La trascendencia de las comunicaciones:
  - Muy frecuentes (que se repiten a menudo)
  - De gran difusión (que llegan a un gran número de lugares y personas)
  - Que sirven de modelo para otros escritos (ordenanzas, decretos, ...)
  - Que influyen en la imagen corporativa de la entidad (página web, anuncios, publicaciones...)

Dicho de otro modo: de cara a la normalización del uso del euskera, una comunicación (oral o escrita) será considerada prioritaria si se dirige a la ciudadanía o a otras administraciones de la CAV y en base a su frecuencia o importancia, tiene una gran repercusión.

El análisis comunicativo debe dar pie, asimismo, a realizar una propuesta de establecimiento de fechas de preceptividad.

En todo caso, dicho análisis comunicativo se realizará de modo realista, sin establecer objetivos inalcanzables, analizando en su integridad el sentido de los procedimientos, la red relacional y la transversalidad de manera que la comunicación en euskera no se vea

## **9. Berriazko hizkuntza-prestakuntza**

Azterketa komunikatiboa egin ondoren jakingo da zenbat ekintza antolatu behar diren hautatutako komunikazioak euskaraz ere egiten hasteko.

Administrazioko langile euskaldun gehienek hizkuntza prestakuntza orokorra jaso dute (euskalduntze ikastaroak), eta prestakuntza horri eta beren ahaleginari esker, hizkuntza gaitasun jakin bat eskuratu dute. Alde horretatik, hizkuntza eskakizuna egiaztatu izanak langilearen gaitasuna ziurtatzen du; nolahi ere, badira beste hainbat eragile aintzat hartu beharrekoak: zenbat denbora igaro den hizkuntza eskakizuna egiaztatu zuenetik orain arte; zenbateraino erabili duen euskara tarte horretan, langilearen atxikimendua hizkuntzarekiko, euskara erabiltzeko motibazioa... Arrazoi bat edo bestea dela, kontua da zenbait langilek kezka bat baino gehiago izan dezaketela pentsatzen dutelako, euskara ikasi izan arren, gaur egun ez direla gauza beren lanpostuei dagozkien funtzio espezifikoak euskaraz egiteko.

Eta horretara dator, hain zuzen ere, berriazko hizkuntza prestakuntza, irakaskuntza orokorretik laneko eguneroko errealitatera jauzi egiten laguntzera, tokian tokiko beharrezko izan daitezkeen xede edo helburuei erantzuteko ikastaroen bitartez. Azken finean, ezin da ahaztu langilea prestatu behar dugula ez euskara gehiago jakiteko, baizik eta euskaraz ere lan egiteko: hainbat komunikazio (ahozkoak zein idatzikoak) euskaraz ere egiteko.

Horrela izanik berriazko prestakuntzak epe mugatua izango luke: langileak

interrumpida.

## **9. Capacitación y formación específica**

Una vez realizado el análisis comunicativo se conocerá qué acciones deben llevarse a cabo para comenzar a realizar también en euskera las comunicaciones seleccionadas.

La mayoría de los/as trabajadores/as de la Administración han recibido una formación general (cursos de euskaldunización), y gracias a esa formación y a su esfuerzo personal han adquirido una determinada capacitación lingüística. En este sentido, el hecho de haber acreditado el perfil lingüístico correspondiente certifica la capacitación del trabajador/a; no obstante, deben tenerse en cuenta otro tipo de condicionantes: cuánto tiempo ha transcurrido desde la acreditación del perfil, cuánto se ha utilizado el euskera durante ese periodo, la identificación del trabajador/a con la lengua, su motivación para expresarse en euskera, etc. Sea por una u otra razón el caso es que algunos/as trabajadores/as pueden estar preocupados pensando que, pese a haber aprendido euskera, no son capaces de desempeñar en euskera las funciones específicas que requieren sus puestos.

Esa es, en concreto, la labor de la formación lingüística específica: ayudar a dar el paso de la formación general a la realidad del trabajo cotidiano, mediante cursos que respondan a los objetivos específicos de cada puesto de trabajo. No puede olvidarse, en última instancia, que el objetivo principal es formar al trabajador, no para que aprenda euskera sino para que desarrolle ciertas comunicaciones orales y escritas también en euskera.

Ese periodo de capacitación comenzará en el momento en que se detecte que

komunikazioa euskaraz egiteko laguntza behar duenean hasiko litzateke; eta bukatu komunikazio edo zeregin hori euskaraz "normaltasun" osoz burutzeko gauza denean.

## **10.- Antolakuntza-egitura**

V. plangintzaldiak jasotzen duena garatzeko eta inplementatzeko ondoko antolakuntza-egitura osatuko da:

### **Euskararen Normalizaziorako Batzorde Aholkularia (ENBA)**

Batzorde hau, dagoeneko eratuta, unean une Euskara Arloaren eskuduntza duen zinegotzi delegatuak deituta, gutxienez, sei hilabetean behin bilduko da eta honako eskumen hauek izango ditu:

- Barakaldoko Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Beharrezko egokitzapenak proposatzea urteko helburu orokorretan, zehazketan, estrategietan eta ekintza planean
- Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak betetzeko izan litezkeen oztopoak detektatzea eta aztertzea.
- Udal langileek euskara ikastaroetan edo trebakuntza ikastaroetan parte hartzeko bete behar dituzten baldintzak aztertzea eta bere inplementazioaren jarraipena egitea.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari derrigortasun-data berriak jartzeko proposamena egitea.

un trabajador/a necesita ayuda para llevar a cabo sus comunicaciones en euskera, y terminará cuando se considere que está suficientemente formado.

## **10.- Estructura organizativa**

Se creará la siguiente estructura organizativa para el desarrollo e implementación de lo establecido en el V período de planificación:

### **Comisión Informativa de Normalización Lingüística (ENBA)**

Esta Comisión, ya constituida, se reunirá a convocatoria del Concejal Delegado/a que ostente en ese momento la competencia del Área de Euskera, como mínimo, una vez al semestre, con las siguientes funciones:

- Realizar el seguimiento y evaluación del Plan de Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de Barakaldo..
- Proponer los ajustes necesarios en los objetivos generales, específicos, estrategias y plan de acción anual.
- Detectar y analizar las dificultades que puedan surgir a la hora de cumplir los Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales.
- Analizar las condiciones que han de cumplir los/as empleados/as municipales para asistir a cursos de euskera o de capacitación lingüística y realizar el seguimiento de su implementación.
- Proponer a la Viceconsejería de Política Lingüística nuevas fechas de preceptividad.

## 11.- Baliabideak

Euskararen Erabilera Planak aurrera egin dezan, beharrezkoak izango dira giza baliabideak eta baliabide materialak:

- Euskara Zerbitzuko langileak (Euskara Teknikaria eta Administraria).

Euskara Teknikariaren zereginak honako hauek izango dira, besteak beste: egitasmoaren diseinua proposatzea, berau betetzeko normalizazio ekintzak proposatzea, egitasmoa betetzeko hizkuntzari lotutako aholkularitza eta laguntza ematea eta, ebaluaketa egiteko metodologia proposatzea.

Hizkuntzari lotutako aholkularitza eta laguntza emateak, trebatze saioak, zuzenketak, kontsulten erantzunak, plan honek jasotzen dituen hizkuntza irizpideen berri ematea eta antzerako funtzioak garatzea esan nahi du.

- Giza Baliabideak Arloko Zerbitzuburuarekiko elkarlana, Lanpostu Zerrendari eta hizkuntz eskakizunei (derrigortasun datak...) dagokien guztia kudeatu ahal izateko.

- Itzultzaileekiko elkarlana Planean ezarritako Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideetatik eratorritako itzulpen beharrei erantzun ahal izateko.

Baliabide materialei dagokienez, V. Plangintzaldiari dagokion aurrekontu ekitaldi bakoitzean, Euskara Zerbitzuak diru partida bat izango du urte horretan aurreikusten diren normalizazio ekintzak bideratzeko, beti ere, euskararen erabilera, euskarazko sorkuntza edo sentsibilizaziora bideratuak.

## 11.- Recursos

Será necesario dotarse de una serie de recursos humanos y materiales para llevar a cabo el Plan de Uso del Euskera:

- Personal del Servicio de Euskera (Técnico de Euskera y Administrativo).

Las funciones de la Técnico de Euskera serán, entre otras: proponer el diseño del plan, proponer actuaciones de normalización para su desarrollo, ofrecer asesoría y asistencia lingüística en relación con el desarrollo del plan, proponer metodología para realizar la evaluación.

La asesoría y asistencia lingüística implica impartir sesiones de capacitación, correcciones, responder consultas, informar acerca de los criterios lingüísticos recogidos en el presente plan y desarrollar funciones similares.

- Estrecha colaboración con la Jefa de Servicio del Área de Recursos Humanos para poder gestionar todo lo relacionado con la Relación de Puestos de Trabajo y perfiles lingüísticos (fechas de preceptividad...).

- Estrecha colaboración con las Traductoras, para responder a las necesidades de traducción derivadas de los Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales establecidos en este Plan.

En lo referente a los recursos materiales, el Servicio de Euskera dispondrá de una partida específica en cada ejercicio presupuestario correspondiente al V. período de planificación para llevar a cabo las actuaciones de normalización que se prevean para dicho ejercicio, dirigidas siempre al uso del euskera, creación en euskera o sensibilización.

Halaber, itzulpen zerbitzuek berariazko diru partida bat izango dute, lan-karga dela-eta, Udalak beharrezko duen itzulpen-lanari eutsi ezin dioten uneetan kanpoko laguntza kontratatu ahal izateko.

Azkenik, baliabide materialen artean espazio fisiko bat ere egokitu behar litzateke planean parte hartuko duten langile hautatuek trabakuntza edo formazio espezifikoak burutu ahal izateko. Horretarako, bilera gela bat jarriko da Euskara Zerbitzuaren esku Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoaren indarraldi osoan zehar. Gela hau, ahal den neurrian, Zaballa 3 kaleko Udalaren eraikuntzan egon liteke, edo Donibane 17 kaleko Gazte Bulegoan.

Asimismo se destinará una partida específica a los servicios de traducción, de tal manera que en aquellos momentos puntuales en que les resulte imposible abarcar todo el trabajo de traducción requerido, puedan contratar para ello una ayuda externa.

Finalmente, como recursos materiales es preciso entender también la existencia de un espacio físico en el que se pueda desarrollar la labor de capacitación y formación específica de los/as trabajadores/as seleccionados para formar parte del plan. A tal efecto se habilitará y se pondrá a disposición exclusiva del Servicio de Euskera y durante toda la vigencia de presente Plan Estratégico de Normalización del uso del Euskera una sala de reuniones, preferiblemente, en el edificio de propiedad municipal, sito en la calle Zaballa 3 bis, o en su defecto, una sala de la Gazte Bulegoa, en la calle San Juan 17.

## **III.- V. PLANGINTZALDIAREN IRIZPIDEAK**

## **III.- CRITERIOS DEL V. PERIODO DE PLANIFICACIÓN**



## 1.- Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak

Barakaldoko Udalean azken urteotan langileak euskalduntzen egin den ahaleginaren ondorioz, langile ugari dute dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatuta eta hortaz, euskaraz lan egiteko gaitasuna; dena dela, oraindik ere hainbat arlotan, urte luzeetako inertziaren indarrez, gaztelania hutsez lan egiten da. Agerikoa da, beraz, Barakaldoko Udala benetan elebiduna izango bada, bi hizkuntza ofizialak orekaz eta berdintasunez erabili behar dituela.

Giltzarria ezagupenetik erabilerarako jauzia pixkanaka egiten joatean datza, benetan egin daitekeena baino gehiago eskatu gabe, baina egin daitekeen guztia eginez. Eta horretarako ezinbesteko baliabide izango dira **Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak**, planaren helmuga eta pausoak zedarrituko baitituzte; izan ere, Barakaldoko Udalak ele bietan jardun dezan, behar-beharrezkoa da langile, atal eta sail bakoitzak jakitea zein egoeratan erabili behar dituen bi hizkuntza ofizialak, alegia, noiz eta zer egin behar duen euskaraz.

### 1. artikulua.- Eragin-eremua

Barakaldoko Udalaren arlo guztiek eta haren erakunde autonomoek bete behar dituzte arau hauek.

